

URKIOLA ARRIGARRI: IV GUDAK

Geure eleizak maite doguz eta gutzat bizitzako gomutaki asko daukez barruan eta antxe izan dogu Jeungoikoagaz alkartzeko toki egokia.

Baiña zori txarrez guda sortzen danean kristiñau diran gudalariak eurak izaten dira eleizak apurtzen dabezenak.

Gogoratu, esaterako, Begoña'ko eleizea. Zenbat bidar izan da apurtua, zenbat bider egin diran bertan lapurretak eta sua!

Mungia'ko eleizea daukat oraintxe gogoan. Bilbao zaintzeko zan ez Burdiñezko Garrikoaren ondoan egoalata dinamitaz austu eben eleizea. Eta ez ziran sinistebakoak lan ori egin ebenak. Gudak bere legeak daukaz eta legeen barruan gorrotoa ta asan-ea.

Antzeko jazoerak izan ziran Urkiola'n be.

Lenenego txandea frantzetarrena izan zan: Gaiso-etxe-ko atekaz sua egin eben, al eben guztia ostu eta ganora barik saldu. Kosta zan ainbat eleiz-gauza barriro eskurtzea. Mezea esatea be galazo egin eben eta orretarako baimena lortzeko gudari-buruari janaritzat txitak emon bear izan eutsoezan. Aldi baten eleizarako atekaz zarratu be egin ebezan orma bategaz.

Bigarren txandea Karlostarren eta liberalena izan zan. 1834n. urtean barriro eleizarako atekaz ormaz itxi ebezan eta urrengo urtean erre, al eben guztia erre eben. 1828n.

urtean irudiak Abadeño'ra croan bear izan ziran, Torkatz deunaren parrokira eta lau urte igaro ebezan an. Bertara joaten asi zan jente Urkiola-zalea eta andik barriro Urkiola'ra ekarri bear izan ziranean, abadeñotarrak aurka jarri ziran. Gotzaiñaren agindua bear izan zan.

Karlostarren bigarren gudan Urkiola'n izan eban aldi baten bere bizilekua Santa Krutz abadeak. Gaiso-etxean alkartzen zan bere jarraitzaileak eta antxe errezaten eben eurakaz agurtza deuna. VII Karlos erregegaia bera be Urkiola'n izan zan 1875m. urtean arrentza baten.

Ulertu-eziñeko gauzea da zelako buru-aldaketa sortzen dauan gizonengan guda batek!

Gero 1936n. urteko gudaldia etorri zan. Urkiola'tik urrean dago Saibigain mendia eta emen izan zan gudaldirik gogorrenetariko bat, egunez eskuratzen eben batzuk mendi-gaiñea eta gabaz galdu eta orrelan ainbat denporatan. Gudaldi orren gomutakia da gaur eleizan dagon leiar margotu bat. Guda ez dogu aitzu egin bear, bake- zaletasuna sortzeko ondo jatorku gudaren ondoren negargarriak gogoratzea.

Eragozpen eta oztopo guzti oneik azpiratu eta Urkiola'k aurrera jarraitu dau, zorionez.

Olazar eta Uribe'tar Martin'ek

IPUIN-SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

BILBAO
DUL
ATUNTAMENIL
LAGUNTZAILLE

EUSKARAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

Ipuinak asmatu-rikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak. Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira.

Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuinaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean. Azillaren azkenerako EUSKARAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14. 2.^a eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterrillean, baita DEIA Egunkarian be albait lasterren.

Sariak lau izango dira:

1.^a 50.000 pezeta

2.^a 40.000 pezeta.

3.^a 30.000 pezeta.

4.^a 20.000 pezeta.

5.^a 10.000 pezeta.

Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

Epea abenduaren azkenera arte luzatzen da.

EUSKARAZALEAK

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ